



MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Edozein negozio-ereduren oinarria, *Canvas* ereduak dioenez, bezeroak dira, hauek baitira gure enpresa aurrera eramango dutenak.

PARKALAI enpresa, **naturaz** gain, **kirolaz** ere gozatu nahi duten jendearentzat dago zuzendua; izan ere, gure enpresak naturarekin oinarritutako heziketa paregabea eskaintzen du kirolaz gozatzen duzun bitartean, antolatutako ekintzen bitartez, naturarekin lotutako gauzak ikasiko dituzulako.

Merkatuaren **segmentazio** motari dagokionez, gure enpresa EAEko sektore guztiari zuzenduta dago, hau da, bertako biztanle guztiei. Bezero bakoitzak, behar desberdinak izango ditu; batzuek naturarekin harremana duten ekintzetan ekintzak burutzeko beharra edukiko dute, beste segmentu batek, emozio eta zirrara handia sortarazten duten ekintzetan parte-hartzeko nahia izango dute. Gainera, kirolarekin harremanetan ekiteko gogoia izango dutenak ere egongo dira, eta beste batzuk beharbada ez dute inolako beharizan konkreturik.